

ELKARTEAK

Gure aparkaleku aplikazioak hainbat bazkide eta hornitzaile sare behar ditu behar bezala funtziona dezan. Lehenik eta behin, udal eta erakunde publikoekin elkarlanean arituko ginateke hirietako datuak eta informazioa eskuratzeko. Aparkaleku pribatuak ere bazkide estrategikoak izango lirateke, haien espazio libreak gure sisteman sartu ahal izateko eta gure aplikazioaren informazioa ez bakarrik eremu publikoetan egoteko, pribatuetan ere. Bestalde, hornitzaile teknologikoek eta adimen artifizialeko enpresek gure algoritmoak hobetzen eta denbora errealeko funtzionamendua aztertzen lagunduko lukete. Azkenik, marketin agentziekin itunak egitea erabilgarria litzateke aplikazioa zabaltzeko eta erabiltzaile gehiago erakartzeko.